| UDAL OSOKO BILKURA | SESION PLENARIA MUNICIPAL. |
|---|---|
| 2019 - EKAINA - 15 | 15 - JUNIO - 2019 |

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2019/06/15
**HASIERA / INICIO:** 12:00
**AMAIERA/FINAL:** 12:15

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**
**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Itziar Zabala Legarreta (EAJ-PNV)
Maitane Zearreta Lizarte (EAJ-PNV)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
M.ª Begoña Salbidegoitia Arana (EH BILDU)
Gaizka Larrabaster Cid (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ezohikoa / Extraordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, 2019ko ekainaren 15ean, hamabietan, aurretik deialdia eginda, goian aipatu zinegotziak bildu ziren, hautaturiko zinegotzi-txartela aurkeztu diotenak Udaletxeko Idazkaritza Nagusiari, Udalbatzaren Eraketa Saioa burutzeko.

En la Sala de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las doce horas del día 15 de junio de 2019, se reúnen, previa convocatoria efectuada, los concejales arriba indicados, los cuales han presentado la credencial de concejales electos ante la Secretaría General del Ayuntamiento, al objeto de celebrar la Sesión Constitutiva de la Corporación Municipal.

**Lehena.- Adin Mahaiaren Eraketa.**

**Primero.- Constitución Mesa de Edad.**

Ekainaren 19ko Hauteskunde-araubide Orokorraren 1985/5 Lege Organikoaren 195.2 artikuluak eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 1986/2568 Errege-dekretuaren 37.2 artikuluak xedaturikoa betetze aldera, Idazkariak hautaturiko zinegotzi zaharrenari, Miren Begoña Salbidegoitia Arana, Mahaiburu izan dadin deitu zion, hautaturiko zinegotzi gazteenak, Maitane Zearreta Lizarte, kide gisa lagunduta, Busturiako Udalbatzaren eraketari ekiteko.
Adin Mahaia eratuta, hautaturiko zinegotzi zaharrenak eta gazteenak Udaletxeko Idazkari Nagusiarekin batera, Mahaiburu jaunak irekitzat jo zuen saioa.

En cumplimiento de lo que disponen los arts. 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, y 37.2 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el Secretario solicita a la concejala electa de mayor edad, Miren Begoña Salbidegoitia Arana, que pase a presidir la Mesa acompañada, como vocal, del concejal electo de menor edad, Maitane Zearreta Lizarte , a fin de iniciar la constitución de la Corporación Municipal de Busturia.
Constituida la Mesa de Edad, por los concejales electos de mayor y menor edad indicados junto al Secretario General de la Corporación, el Sr. Presidente declara abierta la sesión.

**Bigarrena.- Zinegotzi-txartelen eta hautatuen nortasunaren egiaztapena.**

**Segundo.- Comprobación de credenciales y personalidad de los electos.**

Idazkariak adierazi zuen Gernika-Lumo Eremuko Hauteskunde-Batzordeak, Hauteskunde-Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 108.5 artikuluaren arabera, Busturiako hauteskunde-barrutian 2019ko maiatzaren 26an buruturiko udal-hauteskundeen emaitzei buruzko akta idatzi duela.
Emaitza horren arabera, Hauteskunde-Batzordeak hautaturiko zinegotziak izendatu zituen hautagaiak, izen-zerrenda honen arabera:

El Secretario manifiesta que la Junta Electoral de Zona de Gernika-Lumo, en cumplimiento de lo que dispone el art. 108.5 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General ha extendido el acta de proclamación del resultado de las elecciones municipales celebradas el día 26 de mayo de 2019 en la circunscripción electoral de Busturia.
De acuerdo con el resultado reflejado, la Junta Electoral ha proclamado concejales electos a los candidatos de acuerdo con la siguiente relación nominal:

- Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
- Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
- Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
- Itziar Zabala Legarreta (EAJ-PNV)
- Maitane Zearreta Lizarte (EAJ-PNV)
- M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
- M.ª Begoña Salbidegoitia Arana (EH BILDU)
- Gaizka Larrabaster Cid (EH BILDU)

- Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

Idazkari Nagusiak adierazi zuen zinegotzi guztiek Eremuko Hauteskunde-Batzordeak emandako zinegotzi-txartela aurkeztu zutela eta, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985/7 Legearen 75. artikuluaren arabera, denek aurkeztu ziotela Idazkaritza Nagusiari Ondasunen Erregistroan eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko nahitaezko adierazpena.

El Secretario General informa de que todos los concejales han presentado la credencial expedida por la Junta Electoral de Zona y que, de conformidad con el art. 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, todos han presentado en la Secretaría General la preceptiva declaración para la inscripción en los Registros de Bienes Patrimoniales y en el Registro de Actividades.

**Hirugarrena.- Zinegotzien zina.**

**Tercero.- Juramento o promesa de los concejales.**

Jarraian, hautaturiko zinegotziak euren karguez jabetu ziren.

Acto seguido, los concejales electos toman posesión de sus cargos.

**Laugarrena.- Udalbatzaren eraketa-adierazpena.**

**Cuarto.- Declaración de constitución de la Corporación.**

Behin nahitaezko izapideak beteta, Adin Mahaiburuak, indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion ahalmenen arabera, Busturiako Udalbatza formalki eratutzat jo zuen.

Una vez cumplidos los trámites preceptivos el Presidente de la Mesa de Edad, en ejercicio de las facultades que otorga la legislación vigente, proclama formalmente constituida la Corporación Municipal de Busturia.

**Bosgarrena.- Alkatearen hautaketa.**

**Quinto.- Elección de alcalde.**

Mahaiburu jaunak iragarri zuen, jarraian, alkatea hautatuko zela, gogoratuta, HAOLOren 196. artikuluaren arabera, hautagai izan daitezkeela hautagaitza bakoitzaren zerrendaburuak; eta zein hautagaitza aurkezten ziren galdetu zuen.
EH Bilduren aldetik, M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz andrea.
EAJren aldetik, Aitor Aretxaga Telletxea jauna.
Hautagaitzak bozkatuta, emaitza hau atera zen:

- M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz, hiru boto.
- Aitor Aretxaga Telletxea jauna, bost boto.
- Abstentzio bat.

Azkenik, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 196.b artikuluan ezarritako gehiengo absolutua lortuta, Idazkariak, Aitor Aretxaga Telletxea jauna izendatu zuen Busturiko alkate bezala.

El Sr. Presidente anuncia que, seguidamente, se procederá a la elección del alcalde, recordando que, de conformidad con el art. 196 de la LOREG, pueden ser candidatos los cabezas de lista de cada candidatura y pregunta qué candidaturas se presentan.
Por parte de EH Bildu se presenta la candidatura de M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz.
Por parte de EAJ-PNV se presenta la candidatura de D. Aitor Aretxaga Telletxea.
Sometidas a votación las candidaturas se produjo el siguiente resultado:

- M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz, tres votos.
- Aitor Aretxaga Telletxea, cinco votos.
- Una abstención.

Finalmente, al obtener la mayoría absoluta establecida en el art. 196.b de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General, el Secretario, proclama alcalde electo de Busturia a Aitor Aretxaga Telletxea.

| Seigarrena.- Alkatearen kargu-jabetzea. | Sexto.- Toma de posesión del alcalde. |
|---|---|

Jarraiki, Aretxaga jaunak karguaz jabetu zen eta Adin Mahaiburuak agintaritza-makila eman zion.
Ondoren, Aretxaga jaunak honako hitz hauek esan zituen:
Egun on.
"Jaun andre zinegotzixek.
Idazkari jauna.
Busturitar biztanleok.
Egun on danori,
Gaur, ospatzen ari gara udaletxe honetan, Busturitar guztien etxean, legealdi barri honen lehenengo osoko bilkura.
Herriak emandako konfiantzari esker, berriro niri dagokit korporazioaren buru izatea.
Ohore bat da eta apaltasun pertsonaletik onartzen dodan erantzukizun itzela.
Lagunok, eskatzen dotsuet proiektu honen inguruan batu gaitezan, holan, danon artien eta geure eguneroko lan gogorrarekin, erantzun egokia emon pertsonen behar izanei eta Busturia hobe bat eraiki ahal izateko.
Honetan lau urtietan garatutako lanaren fruituak jasoko doguz.
Baina gatzena egiteko dau, hau da, geure herriaren etorkizuna indartzea eta sendotzea.
Bide honetan ez da inor atzean geratuko, gure konpromisoa pertsonengatik eta pertsonentzat lan egitea dalako.
Gure akzio guztiek ahaztu ezin dogun jatorri honetan inguratuta egon behar dabe.
Amaitu berri dogun legealdia gogorra izan da Busturiko udala osatzen daben pertsona guztientzat, horregaitik eskertu behar dot, danon artean egindako lana eta sentitu dodan laguntza gainerako taldeen aldetik, tentsio asko egon diren uneetan.
Eskerrik asko zinegotzi lanetan jarraitzen dozuenari, eta baita ere amaitu dabenari, Fito, Aritz eta Andoni eskerrik asko, eta oso era berezian eskertu nahi dodaz, beraien laguntzagatik, niretzako oso garrantzitzuak izan diren Jabi Luaces eta Iñaki Inzunza.
Eusko Alderdi Jeltzaleari be eskerrak emon gura deutsat, Busturirako duen proiekto honetan, berriro ere neure aldeko apostua egiteagatik.
Era berean, eskerrak emon gura deutset 2019-2023 legealdi honetarako geure proiektuaren alde ein dauen Busturiako

A continuación, el Sr. Aretxaga toma posesión del cargo y el Presidente de la Mesa de Edad procede a la entrega de la vara de mando.
Seguidamente el Sr. Aretxaga pronuncia las siguientes palabras:
"Egun on,
Concejales y Concejalas,
Sr. Secretario,
Vecinos\as de Busturia,
Egun on a todos\as,
Hoy estamos celebrando en este Ayuntamiento, en casa de todos los busturianos\as, el primer pleno de esta nueva legislatura.
Gracias a la confianza emitida por el pueblo, de nuevo me toca presidir esta corporación.
Es un honor y una responsabilidad muy grande que lo acepto con humildad.
Amigos\as, os pido que nos unamos en este proyecto, para que entre todos\as y con el duro trabajo diario, podamos dar una respuesta adecuada a las necesidades de las personas y poder construir una Busturia mejor.
Hemos recibido el fruto del trabajo desarrollado durante estos últimos cuatro años.
Pero lo más difícil está por hacer, es decir, fortalecer el futuro de nuestro pueblo.
En este camino no quedará nadie atrás, porque nuestro compromiso es trabajar por y para las personas.
Todas nuestras acciones tienen que estar rodeadas en este origen que no podemos olvidar.
La legislatura que acabamos de terminar ha sido dura para todas las personas que integramos el Ayuntamiento de Busturia, por eso debo agradecer el trabajo realizado entre todos\as y el apoyo recibido por parte del resto de los grupos en momentos de mucha tensión.
Gracias a los que seguís trabajando como concejales, y también a los que termináis, Fito, Aritz y Andoni, gracias.
Quiero agradecer de forma muy especial, por su colaboración, y que han sido muy importantes para mí, a Jabi Luaces e Iñaki Inzunza.
También quiero agradecer al Partido Nacionalista Vasco por el proyecto que tiene para Busturia, y por apostar nuevamente por mí.

ehundaka gizon emakumeei, eta zuzenien botue geuri hemon ala ez, orain dela lau urte aipatu nuen bezala, seguru egon jarraituko dodala Busturitar gizon-emakume guztien alkatea izaten.
Berriro onartzen dot alkate izatea, honek suposatzen dauen neure konpromiso eta sakrifizio pertsonal guztiagaz.
Eta utxistazue esaten...Derrigorrez esan beharra daukat, eskertu nire familiari, Busturiagaz duen esku-zabaltasuna, eta aurrerantzean horrela izaten jarraituko duena. Orain arte hauteskunde programa baten proposamenak izan direnak errealitate bihurtu behar dira.
Udal honetako alderdien programen antzekotasunak nabariak dira, hor errez topako gara, baina desadostasunak be egongo dira...eta akordiotara iristeko... ba... elkarrizketa, elkarrizketa, eta elkarrizketa...
Gaur, legealdi barri bat hasten da. Hemendik, berriro ere, neure egiazko eskaintza emoten dot hemen dagozan gainerako udal-taldei, Mariascen eta Jonan, udal politika jardunean konstruktiboki parte hartzeko.
Gure aldetik, lankidetzarako eskua eskaintzen dogu.
Eta azkenik, amaitzeko, esan...
Momentu honetatik, bai ni neu Alkate bezala, bai gobernu taldeko zinegotziak, Idoia, Naiara, Itziar eta Maitane, zeuen eskura gagoz.
Eskerrik asko barriro guztiori, bereziki zapatu goiz honetan hona hurbildu zarenei. Mila esker zuen presentziagatik.
Jar gaitezan, gaur berton, lan egiten Busturia hobe baten alde.
Eskerrik asko.
GORA BUSTURIA!!!”

Del mismo modo, quiero agradecer a los cientos de mujeres y hombres de Busturia por haber apostado por nuestro proyecto para la actual legislatura 2019-2023. Y aunque no nos hayan botado directamente a nosotros, como dije hace cuatro años, pueden estar seguros que seré Alcalde de todos los hombres y mujeres Busturianos\as.
Acepto nuevamente ser Alcalde, con todo el compromiso y sacrificios personales que esto supone.
Y dejarme decir…. Tengo que decirlo obligatoriamente, agradecer a mi familia la generosidad que tiene con Busturia y que en lo sucesivo también seguirá siendo así.
Las que hasta ahora han sido propuestas de un programa electoral se tienen que convertir en realidad.
Son evidentes las similitudes en los programas de los partidos, ahí coincidiremos fácilmente, pero también habrá desacuerdos, y para llegar a acuerdos, conversación, conversación y conversación.
Hoy da comienzo una nueva legislatura. Desde aquí, nuevamente, doy mi ofrecimiento al resto de los grupos, Mariascen y Jonan, a tomar parte constructivamente en el ejercicio político municipal. Por nuestra parte, nos ofrecemos a colaborar, y por último y para terminar, deciros que, tanto yo como Alcalde, como los concejales del grupo de gobierno, Idoia, Naiara, Itziar y Maitane, estamos a vuestra disposición.
Gracias de nuevo a todos\as, especialmente a los\las que os habéis acercado hasta aquí esta mañana de sábado. Gracias por vuestra presencia.
Pongámonos hoy mismo a trabajar a favor de una Busturia mejor.
Gracias.
Gora Busturia!!!!”

Alkatetzak besterik ez zuela, bukatutzat jo zen saioa, hamabiak eta laurdenetan, eta adosturikoen inguruan Alkate jaunak eta fede ematen dudan Idazkariak sinaturiko akta hau idatzi da.

No habiendo más asuntos que tratar por la Presidencia, se levanta la sesión siendo las doce horas quince minutos y de lo acordado se extendió la presente acta que firman el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

**Alkatea**/El alcalde

**Aitor Aretxaga Telletxea**

**Idazkaria**/El secretario,

**Víctor-Martín Amparan Álvarez**